

Carlos González, pediatra

«Haurrak medikalizatuegi daude»

Bésame mucho, guraso berrien artean gehientsuen saltzen den eskuliburuaren egileak pediatrien zuzentasunaz eta pediatriengan eskertzen den umore finaz erantzun ditu gure galderak, Uda Ikastaroek Donostiara ekarri duten honetan. *Duérmete niño* metodoaren kontrako teorialariak dio, bere liburuetan gurasoei zer egin agindu beharrean, haurren portaera azaltzen saiatzen dela: “Hortik aurrera guraso bakoitzak erabaki dezala, baina gutxienez informazio zuzenarekin hartu dezala erabakia, ez haurra manipulatzailerik bat dela pentsatuta”.

ESTITXU EIZAGIRRE

Argazkiak: Dani Blanco



Egun osoan besotan dauden umeak, gurasoekin lo egiten dutenak, bularra hartzen dutenak... Gerora autonomoagoak direla esaten da...

Ez zaizkit interesatzen teoria horiek guztiak, haurrei egiten dieguna justifikatzeko heldutan nolakoak izango diren esaten dutenak. Nik besarkadak ematen dizkiot, ikusten dudalako besarkatuta dudan momentuan haurra pozik dagoela. 30 urte barru pozik jarraituko duen? Gauza asko gertatzen dira 30 urtean. Horrek denak eragingo du, baina ezin da sinismen magiko bat eduki. Baina une honetan nire haurra ez dago berdin negarrez ari denean kotsolatzen badut edo negarrez uzten badut.

Baina hasieratik isildu arte negar egiten utzi dituztenek autonomoagoen itxura dute.

Haurrak ez dira tontoak. Negar egiteak ez duela ezertarako balio ikusten dutenean, negar egiteari uzten diote. Demokrasiarekin askoz greba gehiago egon dira Frankismoarekin baino. Horrek esan nahi du langileak gusturago zeudela Francorekin? Ezetz esango nuke...

Bitxia da, Gobernuari eta etxea gobernatzeari nola ez diogun parekotasunik ikusi ere egiten. Askotan esaten da haurrari arau bat

Carlos González Rodríguez (Zaragoza, 1960) pediatra Nazioarteko Esnearen Ligako Osasun Aholkularitzako kide da eta 1992tik 100 ikastarotik gora eman ditu osasun alorreko profesionalentzat. Metodo konduktistaren kontra, atxikimenduz haztearen defendatzaile sutsua da.

jarri bazaio, derrigor bete behar dela, bestela haurrak berearekin ateratzen ikasten duela. Epaille batek sententzia ematen duenean, eskubidea dago Auzitegi Gorenean helegitea jartzeko. Gorenak aurreko epailleak emandako epaiaren kontrakoa hartzen badu, inork ez du esango “epailea autoritatea galtzen ari da”... Demokrasiaren oinarria botere banaketa da, eta familietan berdin, gurasoek ez dute denean diskurtso bakarra defendatu beharrik. Bietako batek hanka sartzean besteak zuzendu dezala.

Zergatik dago gaizki ikusia ume kozkorrei bularra ematea edota gurasoen ohe berean lo egitea?

Inbidia da. Urtebeteko haurrari bularra emanen badiozu, beharbada lagunena bat haserretu egingo zaizu: “Bada nik biberioa eman nion eta oso ondo hazi da!”. Bizitzako beste kontuetekin jendea ez da horrela jartzen, inork ez dio harakin bati esango “bada ni okina naiz eta nirea ere oso ofizio ona da!”. Bakoitzak bere bizitza du, eta ez da ezer gertatzen. Orduan, zergatik egiten du topo benetako gaitzespenarekin bularra ematen duenak, haurraren lo egiten duenak, edo haurra besotan eramaten duenak? Norberaren bizitzan oso gauza garrantzitsua delako, horrek adierazten duela nola hazten dituzun zure haurrak eta zure gurasoek nola hazi zintuzten zu, eta jende askori barru-barruan gustatuko litzaiokeelako hori dena egitea. Benetan hori egiteko inbidiarik ez duena ez da haserretuko.

Esneri buruzko diskurtsoak dio bakoitza libre dela erabakitzeke. Hori hala da praktikan?

Okerrago ikusia dago bi urteko umeari bularra ematea biberioa ematea baino. Kontrako pre-

“Bularrak fisikoki huts egin dezake mila kasutik batean. Baina kasuen erditan huts egiten ari da”

sioa ere sentitzen hasia da, emakume batzuk kezkatzen dira biberioa emateagatik gaizki begiratzen dituztela, ama txarrak direla sentiarazten dituztela. Edukiazirik gabeko jende asko dago, batean eta bestean. Errespetua duen pertsonak batak eta besteak errespetatzen ditu. Pediatra bezala, ama batek esaten badit biberioa emango diola, azalduko diot nola prestatu biberioa, eta beste batek esaten badit bularra eman nahi diola, azalduko diot nola bularra eman. Gertatzen dena da ehunka emakumeri entzun diedala “nik bularra eman nahi nion baina ezin izan dut” eta sekula ez diodala inori entzun “nik biberioa eman nahi nion baina ezin izan dut”. Eta horrek esaten dit, gaur egun, bularra eman nahi dutenek laguntza handiagoa behar dutela. Biberioa eman nahi duenak beti lortzen du ematea.

Zergatik?

Inork ez duelako zalantzan jartzen posible denik. Haur bati biberioa ematen hasi eta uko egiten badio, inork ez du esaten “bularra eman beharko zaio”. Baina haur batek bularrari uko egiten badio, “agian biberioa eman beharko zaio...”. Mundu osoak du argi biberioa eman daitekeela. Baina bularrarekin denok pentsatzen dugu kasu batzuetan huts egiten duela. Eta bularrak, fisikoki, huts egin dezake 1.000 kasutik batean. Baina praktikan kasuen erditan huts egiten ari da. Eta biberioiak ere 1.000

kasutik batean huts egin dezake (haurrak alergia diolako esne horri, adibidez).

Lagun batzuek urtebeteko haurrari esnerik ez ematea erabaki dute. Jogurta eta gazta ematen diote.

Jogurt eta gaztarekin nahikoa eta sobera esne hartzen du haur horrek. Pertsona heldu batek ez du esnerik hartu beharrik. Hori bakoitzaren erabakia da. Esnea ez da txarra, baina ez da ezinbestekoa. Ez dago animaliarik beste animalia klase baten esnea hartzen duenik, eta ez dago animaliarik esnea hartzen jarraitzen duenik behin bere amaren titia utziz geroztik. Orain, norbaitek konbikzioz ez badu inolako esnekirik eman nahi, ezta jogurt eta gaztarik ere, bularra eman diezaiola gutxienez bi urtera arte. Gizakiak gutxienez bizpahiru urtez hartu beharko luke bularra, hala aholkatzen dute Osasunaren Munduko Erakundeak, Unicef-ek eta gainerakoek ere. Bi urte baino gehiagoz bularra hartu duen haurrak hortik

“Beti egin dena da haurrak besoan eramatea eta haurrekin lo egitea. XX. mende erdialdera hasi ziren esaten horrela haurrak gaizki hezitzen zirela”

aurrera ez badu batere esnerik hartzen, ez da ezer gertatuko.

Lagun hauek pediarrarekin eztabaida handia izan zuten. Badirudi haurrak Osakidetzaenak direla, eta gurasoak gezurretan ibili behar duela.

Espainiako Estatuko haurrak medikalizatu egitea daude. Pediatra elikaduraren aspektu batzuetan sartzeari zentzuzkoa da, bere lanaren zati delako. Baina askotan pediatrik esaten dituzten gauzek ez dute zerikusirik bere lanarekin. Eta sarri gurasoak dira pediarrari edozertaz aholkua eskatzen tematzen direnak! Ea zopari porrua sartu behar zaion, edo berenjena ziritu egin behar den... Badirudi haurrak egiten duen edozer pediarrari dagokion kontua dela! Eta bizitzako beste adinetan ez da hau gertatzen. Gai horietan pediarraren erantzunak ez du gehiago edo gutxiago balio amonarenak edo ileapaintzailearenak baino. Tituluak ez dio gaitasunik ematen, ez duelako haurrak nola hazi ikasi. Horrelako gauzak, onena, amonari galdetzea. Batetik, galdetzen badiozu oso pozik jartzen delako, eta bestetik, gutxienez bizi den haur bat hazi duelako, eta hori ez dakizu pediarrak lortu duen edo ez.

Amonek beldur pixka bat ematen didate bada, dena konpontzen dutelako “hau beti horrela

izan da" batekin. Baina noiztik da gure "beti" hori?

Amonaren adina da gakoa. "Beti" dioten amona horietako batzuk, interrogatoriora behartzen dituzunean, aitortzen dute eurek ez zutela esaten duten hori egin. Beti egin dena da haurrak besoan eramatea eta hurrekin lo egitea. Haurrak besoan eramaten zituzten, ez zutelako beste modurik. XIX. mende erdialdera arte ez zen kotxetxorik asmatu. Eta hurrekin lo egiten zuten, zazpi haur zeuden etxean bi gela zeudelako. XX. mendearen erdialdera, pedagogo, psikologo eta mediku batzuen ekimenez, esaten hasi ziren haurrak ez besoan hartzeko bestela gaizki heziko zirela, loarekin berdín, eta abar eta abar. Eta noski, gurasoek ez zuten kasurik egiten. 1930-1940 hamarkadetakoko liburuak amengatik madarikatzen jarduten dira: "Ama ezjakinak", "arduragabeak", "profesionalaren hitza betetzen ez dutenak"... Amona batzuek bete zuten medikuen esana eta gaurko amei gauza bera egiteko esaten diete. Baina beste amona batzuek, zaharragoek, medikuen esana bete ez zutenek, hainbeste errieta jaso zuten, hainbestetan entzun zuten gaizki egiten ari zirela eta ama txarrak zirela, ez dutela nahi euren alabek akats bera egin dezaten. Nik ikusi ditut amona hauetako asko zer kargatik libratzen diren esaten dietenean eurak direla asmatu zutenak, eta medikua zela oker zegoena. Aurpegia aldatzen zaie, eta txorakeria horiek esateari uzten diote.

Lana eta etxeko bizitza nola bateratu daitezke?

Uste dut onartzen hasi beharko genukeela bizitza bakarra dugula. Ezin da aldi berean ingeniari kimiko eta arkitekto izan. Edo bata edo bestea zara. Zergatik sinetsarazten digute lana eta etxeko bizitza dena aldi berean egin daitekeela? Historian oreka izan da dena aldi-berean egitea, baina ez dena maila berean. Garai batean, emakumea lanera zihoan, haurra bizkarrean zintzilika zeramala. Baina noski, inork ez zuen espero umerik gabekoak adina lan egingo zuenik. Enpresariak bazekien emakume horrek etenaldi gehiago egingo zituela, gutxiago errendituko zuela...

Baina enpresariari, zuk zure lanorduek sartzen badituzu, eta berdín errenditzen baduzu, bost axola zaio zure haurra ondo edo gaixo dagoen. Horregatik, amen eskubideak ez dira enpresarioengandik etorri, Gobernuak behartu behar ditu enpresariak, Gobernuari dago-kiolako herria babestea.

Zoritxarrez, Espainiako Gobernuak amen eskubideak handitu beharrean murrizten ari da aspaldiko denboretan. Lanaren Nazioarteko Erakundearen 1951ko konbenioa Espainiako Gobernuak sinatu zuen eta honek esaten zuen amak 12 asteko baimena zuela haurra jai



Mi niño no me come (1999), Bésame mucho (2003) eta Un regalo para toda la vida (2006) dira Gonzálezek idatzirikoko liburu ezagunenak.

ostean. Espainian garai hartan ere 16 aste zituzten amek, beraz, primeran betetzen zen konbenioak zioena. Baina 2001eko Espainiako Gobernuak oraindik ez du sinatu, zerbaitengatik izango da. Konbenio horretan esaten da 14 asteko baimena izan behar dela, eta itxuraz oraindik betetzen da hori, baina eranskin batean esaten da, posible den herrietan 18 aste izan behar lirakeela. Munduko 10. potentzia industrialak ezin badu hori bete, nork bete behar du?

Gure gizarteak ez dio lehentasunik ematen seme-alaben heziketari. Gizarteari ez zaio garrantzitsua iruditzen, etorkizuna horren baitan dagoenean! Garbi dugu etorkizuna azpiegituren baitan dagoela eta AHT eraikitzen da, eta urtegiak, eta abar... Eta biharko hiritarrak haztea ez da garrantzitsua? Baina horri ez zaio lehentasun ekonomiko eta sozialik ematen.

Zein da orduan irtenbidea?

Europako beste herrialdeek dutena: urtebete inguruko baja, eta herrialde askotan horrez gain beste pare bat urte izaten dute aukeran, soldataren parte bat kobratuz.

Baina emakumeak ez al du bere lan mundua galtzen hainbeste urtean haurrak zaintzeko etxean geratuta?

Ezetz erantzuten badizut, denok geratzen gara lasai. Baina erantzuten badizut baietz, haurrak zaintzen dituen emakumeak bere laneko bizi-tza galtzen duela, orduan, haurrak utzita lanera doan emakumeak zer galtzen du? Kontsekuenteak izan behar dugu. Ezin dugu esan laneko bizitzan ezinbestekoa dela presente egotea, bestela galdu egiten duzula antzinatea, galdu egiten dituzula gora egiteko aukerak, galdu egiten duzula dena, eta aldiz haurrarekin egon edo ez berdín duela. Bada alor bat galdu egiten bada, beste alorra ere galdu egiten da. Bakoitzak erabaki behar du zeri eman lehentasuna.

Nik uste dut beste arazo bat dela, liburuak idazten dituen jendeak oso lan onak dituela. Teoriak dio lana dela jendea pertsona bezala garatzen duena. Baina nork idazten ditu teoriak horiek? Kazetariak, abokatuek, unibertsitateko irakasleek... Lan interesgarriak dituztenek. Jendearen gehiengoak ez du horrelako jardunetan lan egiten. Bene-benetan hain garrantzitsua da zortzi orduz atuna latan sartzera joatea? Edo eskilarak garbitzera?

Ona litzateke moduak bilatzea, haurrak zaintzea ez dadin arazo hain handia izan ondoren emakumeak bere karrera egiten jarraitu dezan. Baina horrek ez du esan nahi umeak zaindu behar ez ditugunik. ■

www.argia.com
helbidean, elkarrizketaren bertsiio luzea eta bideoa.